

3 ATMOSFERA ETA KLIMA

1 Ozonoak Eguzkiaren erradiazio kaltegarrietatik babesten du, eta ugaria da...

- a. kanpo-espazioan.
- b. estratosferan.
- c. troposferan.

2 Zerk osatzen dute leku bateko klima?

- a. Tenperaturek eta prezipitazioek.
- b. Tenperaturek eta altitudeak.
- c. Itsasoarekiko distantziak eta prezipitazioek.

3 Zer zona dago ekuatorearen eta tropikoen artean?

- a. Zona hotza.
- b. Zona epela.
- c. Zona beroa.

4 Egunez, itsasoko tenperatura...

- a. altuagoa da lehorrekoa baino.
- b. baxuagoa da lehorrekoa baino.
- c. eta lehorrekoa berdina da.

5 Klimogrametan, zer adierazten dute barrek?

- a. Tenperaturak.
- b. Prezipitazioak.
- c. Altitudea.

6 Espainian, klima mota hauek daude:

- a. Mediterranea, ozeanikoa, tropikala eta goi-mendikoa.
- b. Mediterranea, barnealdekoa, kostaldekoa eta goi-mendikoa.
- c. Mediterranea, ozeanikoa, subtropikala eta goi-mendikoa.

7 Nola esaten zaio oso negu hotzak dituen klima mediterraneoaren aldaerari?

- a. Mediterraneo lehorra.
- b. Barnealdeko mediterranea.
- c. Mediterraneo tipikoa.

8 Espainian, zer altitudetik gorako eremuek dute goi-mendiko klima?

- a. 500 m-tik gorakoek.
- b. 1.000 m-tik gorakoek.
- c. 1.500 m-tik gorakoek.

9 Zer klima motatako zuhaitzak dira arteak eta artelatzak?

- a. Subtropikalekoak.
- b. Mediterraneokoak.
- c. Goi-mendikoak.

10 Zer dira landare endemikoak?

- a. Munduan leku jakin batean baino hazten ez direnak.
- b. Asko ugaltu, eta izurri bihurtzen direnak.
- c. Galzorian daudenak.